

**DU-SANTANDER IKERKETA SARIAREN XIX. EDIZIOA**  
**“ERAGIN ZIENTIFIKO ETA SOZIALEKO IKERKETA”**  
**2023ko DEIALDIA**

Urtarrilaren 20ko 2/2006 Errektorearen Aginduekin bat, *“Eragin zientifiko eta sozialeko ikerketa”* bultzatzeko DU - Santander ikerketa sariaren 2023ko deialdia egiten da. Oinarriak dokumentu honi erantsita daude.

**ZIOEN AZALPENEA**

Unibertsitatearen funtsezko helburuetako bat da ikerketa zientifikoa garatzea, esparru tekniko, sozial eta artistikoan. Ikerketa hori sustatzeak eta indartzeak nabarmen laguntzen du ezagueran, berrikuntzan, herritarren bizi kalitatearen hobekuntzan eta garapenean, baita enpresen lehiakortasunean aurrera egiten ere.

Deustuko Unibertsitatearen helburua da, besteak beste, ezagutzaren mugak zabaltzea bere espezialitateko arloetan, kalitatezko ikerketaren bidez eta, horrela, gizarteari zerbitzu emanez laguntzea, inguruko arazoak eta beharrak kontuan hartuta.

Ikertzaileen eta ikertaldeek ahalegina aitortu eta sustatzeko helburuarekin, lan zientifiko berrien hazkundera eta garapena ahalbidetzen baitute, Unibertsitateak, Santanderren laguntzarekin, DU - Santander. *Eragin zientifiko eta sozialeko ikerketa saria* sortu zuen eta urtero ematen ditu sariak 2005. urtetik.

Sari horren bidez, Deustuko Unibertsitateak eta Santanderrek ikerketa bikainaren garapena babestu dute, irizpide akademikoan arabera, eta, gainera, egungo gizartearen erronkei erantzun eta gizartearen eraldaketan eragin nahi dute. Beraz, sari honen helburua Deustuko Unibertsitateko ikertaldeek egindako ikerketa bikaina aintzatestea eta saritzea da, ikerketaren eragin zientifiko eta sozialari erreparatuta.

### **1. artikulua. Eraketa eta deialdia**

1. *DU– Santander ikerketa saria. Eragin zientifiko eta sozialeko ikerketa saria* eratu da.

2. Saria emateko deialdia urtero egingo du Deustuko Unibertsitateko Ikerketako eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzak.

### **2. artikulua. Hautagaitzak.**

Sari hau jasotzeko hautagaiak Unibertsitate honetako eta Deustu Fundazioko ikertzaileak edo ikertaldeak izango dira. Ikerketako edo doktorego ondoko ikerlan original baten emaitza aurkeztuko dute eta eragin akademiko eta sozial handikoa izango da.

Hautagaitzatik kanpo geratuko dira azken lau edizioetan saria jaso dutenak.

### **3. artikulua. Hautagaitzaren aurkezpena.**

1. Hautagaitza bakoitzak agiri hauek ekarri beharko ditu:

- a. Sariaren eskaera orria (I. eranskina) beteta eta Santander plataforman alta emanda<sup>1</sup>.
- b. Hautagaitza txostena (II. eranskina).
- c. Hautagaiaren edo ikertzaile nagusiaren eta ikertaldearen *curriculum vitae* laburra.
- d. Aurkeztutako proiektuaren "*Deusto Research Social Impact*"<sup>2</sup> Zigiluaren Akreditazioa
- e. Sarira aurkezten den edo diren ikerlan argitaratuak edo lanaren emaitzen ebidentziak, akademikoak eta gizarte eraginekoak.
- f. Ikerlanak kanpoko finantzaketa izan badu, DEIKERren edo IRPO-Nazioarteko Ikerketa Proiektuen Bulegoaren ziurtagiria ere erantsiko da.

2. Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzak egingo ditu kudeaketa administratiboko lanak: deialdi bakoitzerako eskabide orriak prestatu, hautagaitzak erregistratu, dokumentazioa jaso eta kudeaketa administratiboko gainerako zereginak.

---

<sup>1</sup> [www.becas-santander.com](http://www.becas-santander.com), Aurretik, sarbide-kodea eskatu behar zaio Deustuko Unibertsitateko Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzaren Bulegoari.

<sup>2</sup> <http://sello-social-impact.deusto.es>.

#### **4. artikulua. Balorazio irizpideak**

Sariak balioetsiko du hautagaitzen bikaintasun akademikoa, baita egindako ikerlanaren aldaketa edo gizarte eraginerako orientazioa ere.

Beraz, saria emateko bi irizpide hauek izango dira kontuan:

- o Ikerketak ematen dituen ekarpen akademikoen eragin eta garrantzi zientifikoa. Argitalpen eta proiektuen bitartez islatu ahal izango da.
- o Gizarte eragina honela islatuko da: gizartea aldatzeko egin duen ekarpenean, unibertsitatetik kanpoko eragileekin izandako elkarlanean, eta emaitzek jakintza arloaren aurrerakuntzan eta gizarte zabalkundean izan duten eraginean.

Ikerketaren gizarte eragina agerian jasotzeak lortu nahi du proiektua ikerketaren jasotzaile izango den gizarteari begira diseinatzea eta ezartzea eta, ondorioz, emaitzetan agerian jasotzea ikerketa bakoitzak zer eragin lortu nahi duen inguruan.

Accesitaren kasuan, bereziki kontuan hartuko dira justiziaren sustapena bere dimentsio desberdinetan sakontzearekin eta gizarte bidezkoagoa eratzeko konpromisoarekin lotuta dauden lanak, balio horiek defendatzen baititu Deustuko Unibertsitateak.

Horrez gain, epaimahaiak hautagaitza aurkeztu duen ikertzailearen edo ikertaldearen ibilbidea ere balioetsiko du.

#### **5. artikulua. Zuzkidura.**

Sariak 7.500 €-ko zuzkidura izango du eta 2.500 €-ko accesit bat ere eman ahal izango da.

Bi sari ekonomikoak eragineko argitalpenak eta nazioarteko tesiak sustatzeko, mugikortasuneko egonaldietarako, biltzarretara joan eta parte hartzeko eta komunikazioak defendatzeko, ikertaldearen prestakuntzarako, ekipamendu espezializatua erosteko edo ikerketarekin lotutako beste gastu batzuetarako erabiliko dira, Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzaren oniritziarekin. DEIKER arduratuko da taldeei emandako aurrekontua kudeatzeaz. Taldeek bi urteko epea izango dute aurrekontu hori exekutatzeke, saria jasotzen dutenetik hasita.

Saria eta accesita eman gabe geratu daitezke, epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek eskatzen diren baldintzak bete ezik.

Saritutako hautagaiek konpromisoa hartzen dute saria jaso izana aitortzeko ekoizpen eta komunikazio publiko guztietan. Berariazko testu hau txertatuko dute: *“Proiektu honek DU - Santander Eragin zientifiko eta sozialeko ikerketa saria jaso du, 2023ko deialdian”*.

## **6. artikulua. Epaimahaia**

1. Deustuko Unibertsitateko errektoreak izendatutako bost kidek osatuko dute epaimahaia, Ikerketako eta Nazioarteko Harremanetako errektoreordeak proposatuta. Deustuko Unibertsitateko kideek osatuko dute, gehien bat; baina kanpoko pertsonak ere egon daitezke. Santanderrek kideetako bat izendatu ahal izango du.

2. Deustuko Unibertsitateko Ikerketako eta Nazioarteko Harremanetako errektoreordea izango da epaimahaiburu.

3. Erabakiak kideen gehiengoz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, epaimahaiburuaren kalitateko botoak erabakiko du.

4. Epaimahaiak beharrezko ikusiz gero, batzorde zientifikoak eratuko dira, aurkeztutako lanak hobeto balioesteko.

## **7. artikulua. Sariaren eskaera eta ebazpena emateko epeak.**

Eskaerak, Santanderren webgunean alta emanda egoteaz gain, beharrezkoa den dokumentazio osoarekin batera entregatuko dira Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzan 2023ko irailaren 22a baino lehen.

Saria ekitaldi publiko eta aurrez aurreko batean emango da. Ekitaldi horretan aurkeztuko dira saria jaso duten ikerlanak eta gai horiekin lotuta dauden erakunde, ekonomia eta gizarte eragileei gonbidapena luzatuko zaie. Saridun taldeek ekitaldi horretan hartu beharko dute parte, saria jaso ahal izateko.

## **8. artikulua. Saritu gabeko lanak.**

Aurkeztu eta saririk jaso ez duten hautagaitzen dokumentazioa epaimahaiak ebazpena eman eta, gehienez ere, hilabeteren barruan jaso ahal izango da. Epe hori igarotakoan, dokumentazioa ezabatu egingo da erregistrotik.

## **9. artikulua. Oinarriak onartzea**

Sarian parte hartzeak oinarriak onartzen direla adierazten du.